


HARPAREN BILA



Orkestra Sinfonikoa eta Harparako musika aukeraketa

Idea eta kontzeptua: Marion des Jacques

Argumentua eta gidoia: Javier Irigoien

Gida didaktikoa: Javier Irigoien

.

Lehen Hezkuntzarako

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren enkargua - Estreinaldia 2018/Urtarrila

MUSIKA TRESNA

**INGURUAN
DUGU**

GIDARI BURUZ



MUSIKA LANAK

GURE SOKAK ERABILIZ



GIDARI BURUZ

"Harparen Bila" gida didaktikoa proposamen irekia da, ikuskizunaren aurretik komenigarria den kontzertuaren hurbilketa sustatzeko asmoz. Era berean, proposamenak aukera ematen digu emanaldiaren ondoren lanean jarraitzeko.

Instrumentura hurbildu eta gero, gomendatzen dugu "Gure sokak erabiliz" jarduerarekin hastea, kontzertuaren egunean zuekin batera abestu nahi dugu eta.

Izenburuak adierazten duen moduan, kontzertua harparen inguruan osatu da.

Historian zehar eta ikuspuntu organologikoa zein interpretazio teknikari dagokionez, orkestra sinfoniko bat osatzen duten musika tresna desberdinak formatu primitiboetatik garatu dira, garai ezberdinetan izandako musikaren ezaugarri estilistikoekin eta konpositoreen nahietara egokituta. Laster ikusiko duzue harpa honen adibide argi bat dela.

Ekintza-lerro desberdinak proposatzen ditugu: lankidetzarako proiektuan oinarrituta, ikasleek dituzten trebetasunak eta gaitasunak taldearen esku jarriaz harpa "munduko" berezitasunak ezagutzea da helburua.

Jakina, edozein kontu galdetu bahi baduzue idatzi zuen mezu elektronikoa harparenbila@gmail.com helbidera eta gustora erantzungo dizuegu.

Azkenik, hurrengo estekan proposatutako audio eta bideo materialak aurkituko dituzue:

<https://drive.google.com/open?id=1LfUe6aJI0WI5zZdrstfwPVSa1oJCwmJY>





MUSIKA TRESNA

Lehenik eta behin, komenigarria da tresna honen jatorriaz jorratzea eta horrean jardun aurretik ez legoke gaizki musikako tresnen sailkapena berrikustea, harpa dagokion tokian kokatzeko asmoz. Bide batez, famili hori osatzen duten bestelako harpa ezberdinak eta hauen funtzioak ezagutu behar dira.

Oraingoan tresnaren funtzionamendua ezagutzeko ordua izango da:

- tresna osatzen duten zati ezberdinak adierazi eta hauen definizio laburra idatzi.
- eraikitze prozesuan erabilitako egur motak.
- soka motak eta kolore ezberdinen antolaketa.
- erresonantzia kaxa.
- funtzionamendu mekanismoa eta bere eraginkortasuna.
- pedal ezberdinen funtzioa




Mendeetan zehar, ikuspegi organologikotik aztertuta harpak izan duen bilakaeraz jabetzeko garrantzitsua da aldaketarik nabarmenenak jasan dituzten garai historikoak ezartzea, baita jotzeko teknikoaren arloan ezarritako ondorioak ere.

Interesgarria litzateke munduko mapan adieraztea, munduan zehar banatzen diren arpa ezberdinak.

Klasean birziklatze materialak erabiliz arpa bat eraikitzeko proposamena luzatzen dugu orain.

Webgune honetan horretarako beharrezko informazioa aurkituko duzue eta materialen karpetan argibideen dokumentazioa ere sartua dago. Nahiz eta webgune honetan hainbat arpa eraiki ahal izateko aukera dagoen, zalantzarik gabe, interesgarriena "Arpa de caja" deiturikoa da, honek klasean tresna afinatu gisa erabiltzeko aukera ematen du eta.

<https://www.seispinguinos.com/reciclinstrumentos.html>



Kaxazko Harpa.



INGURUAN DUGU

Harpa historian zehar askotan irudikatutako tresna da. Horretarako, ikonografia, grabatuak, eguneroko elementuak, eraikuntzak eta abarretan atentzioa jartzea besterik ez dago.



(1)



(2)



(3)



(4)

- (1) Eskulturan David erregea harpa jotzen , Breda hiriko Eliz Handian (Holanda)
- (2) Circa-ko zigilua (Ruanda)
- (3) “Harpa, itsasoa eta haize leuna” eskultura. Tel Aviv (Israel)
- (4) Txanponak. Harpa zeltiarra 1946ko aintzinako txanponean isladatuta (Irlanda)

Arkitektoentzat, Harpa beraien eraikinetako inspirazio iturri izan da (eraikinak, zubiak, etab...). Harparen izena edo eragina daramate zenbait kale, plaza edo metro geltokiak, adibidez.

Horri buruz ikertu ondoren hauxe proposatzen dizuegu:

- aurretik aipatutako edota izaera ezberdineko adibide diren 10 izen-zerrenda osatu.
- munduko mapa batean islatu.
- lan hori egiterakoan "artistak" izan zuen motibazioaz ikertu.

Azkenik, azken emaitza power pointeko aurkezpen batean islatu daiteke, soinu banda bezala kontzertu eguneko audioren bat erabiliz edota harparen bestelako doinuak aukeratuz, adibidez harpa elektronikorako eginiko konposizioak.



MUSIKA LANAK

Hona hemen kontzertuan entzungo ditugunetarik, hiru obra.

Material karpetan daude:

- **“Sinfonia Fantastikoa”, Hector Berlioz**
- **“Loreen Bals”, Piotr Ilich Chaikovski**
- **“La Source”, Alphonse Hasselmans**


Entzunaldia egin ondoren honokoa eztabaidatzeko proposamena da:

- ezagunak egiten dira??
- zer da musika hori entzutean burura datorkiguna?
- zuzeneko emanaldian entzunak ditugu?
- gogora datorkigu telebistako iragarpenen bat? Eta pelikularen bat?
- atsegin ditugu, ala ez? zergatik?

Hemendik aurrera soinuaren "tempo" eta "intentsitatea" landuko ditugu.

1. **"Sinfonia Fantastikoa"**-ren kasuan, hurrengo YouTube loturan, <https://www.youtube.com/watch?v=BdcTWfEtS6E> balts honen partitura ikus dezakegu konposaketa entzuten dugun bitartean. MP3an ere jarri dugu.

- a) Proposamenaren lehen zatian "tempo" kontzeptuaz lan egingo dugu eta bere esanahia eta ezaugarriak ezagutu ondoren hauxe egin dezakegu:

- ohar honen esanahia zehaztu: **Allegro non troppo**  = 60
- musikako 5 tempo ohikoenen zerrenda idatzi.
- metronomo baten laguntzaz idatzitako 5 tempo horien ezberdintasunak ezarri "oso motela" eremutik "azkarregi" eremuan kokatuz.
- material karpetan aurkituko daiteken obraren sarreraren bi proposamen berrien tempoak zehaztu (errazago izateko jatorrizkoa ere sartua dago)
- aldatu audioaren "tempoak" zuen eskura izan ditzakezuen baliabideekin, hau da, nabigatzaileak ematen dituen aukerarekin edo edizio edo sekuentziatzeko programen laguntzarekin

- b) Proposamenaren bigarren zatian, soinuaren "intentsitatearekin" lotutako adierazpenekin lan egingo dugu:

- zeinu, adierazpen eta laburdura hauen esanahia zehaztu:

f" "p" ,   "cresc." eta "dim."

- valts-a azaldu aurretik, sarreran agertzen diren adierazpen ikurrak idatzi (0' - 0'42'' zatia)
- entzun arretaz partituran isladatuta dauden intentsitate edo indar zeinu ezberdinak audioan nola transmititzen diren.

2. **"Loreen Balts"** obran, balts-a entzun aurreko sarreran jarriko dugu gure arreta, (0' - 0'56'' zatia) honokoari ekiteko:

- metronomo baten laguntzarekin zehaztu zein den honen tempoak, deitura egokia izendatuz.
- entzunaldi aktiboa burutu, tempo aldaketa ezberdinetan arreta jarriaz eta baita ere intentsitate aldaketa unetan.
- piktograma sinplea egin, harpa kadentzia unean (0'20 " - 0'56 " tartea) tempoak duen berezitasuna gure hitz arruntekin idatziz eta 56 segundoko musikan gertatzen diren intentsitate-parametro ezberdinak islatuz lehen ezagutu ditugun musika zeinuak erabiliz.

3. **“La Source”** Alphonse Hasselmans maixuak 1898 urtean Hélène Gayat ikaslearentzat idatzitako ariketa da.

Materialen karpetan, lan honen interpretazioaren bideoa eta lehenengo edizioetako jatorrizko partitura osorik daude:

- begi itxiek lan osoa entzun honen edertasunarekin gozatzeko.
- partituraren lehenengo 5 orrialdeetako melodia jarraitu eta taula digitala erabiliz edota paper handian, koloretako lerro batekin nabarmentzen joan.
- musika lan honetan melodia bakar bat dagoen ala gehiago ba ote diren zehaztu. Kasuaren arabera, doinu bakoitzeko kolore lerro ezberdina erabiliko da.

La source



**Melodiaren laburpen laburra*

- jabetu eskuko zein hatzekin jotzen duen melodia.
- bilatu harpa tresnari primeran dagokion 8. orrialdeko azken konpasean idatzita dagoen **"sdrucciollando"** hitzaren esanahia.

Amaitzeko:

- segundu bakoitzean zenbat nota jotzen dituen zenbatu.
- gelako xafla tresneriarekin partiturako **"sdrucciollando"** soinuak egin.



GURE SOKAK ERABILIZ

Kontzertu egunean orkestrarekin batera abestea nahi dugu eta horretarako gure sokak ongi "afinatu" beharko ditugu.

Honetarako aukeratutako gaia "Trimartolod" da, XVIII. mendeko bretoi doinu tradizionala.

"Trimartolod" hiru marinel esan nahi du eta kondairak dio Terranovara abiatu zirela abenturaren bila.

YouTube-n gai honen bertsio ugari daude. Horietako batzuk bretoi hizkuntzan interpretatzen dira eta datu hau interesgarria da, bretoia Europako hizkuntza gutxituetako bat da eta.

Materialaren karpetan tema osoaren moldaketa erraz bat dago. Ala eta guztiz ere, hasiera batean helburua, kantaren leloa ongi ikastea izango da.

Leloaren ikasketarako:

***"Mariñela joan zen abenturaren bila
abentura bila itxaso barrenera"***

Ondorengo partitura lelo horren moldaketa erraza da:

- xirularekin jo edota abesteko doinua.
- erdiko ahotsetan akordeak daude eta gelako xafladun tresnen artean banatu daitezke.
- lerro melodikoa baxuari dagokio eta teklatu sintetizadorearekin interpretatu daiteke eta baita ere xafladun tresneri grabearekin.
- azken bi lerro erritmikoak perkusio txikia edo gorputz perkusioarekin jotzeko dira.

Jakina, ikasleen artean musika eskolako ikasleak badira, hauxe aukera ona da beraien tresneriarekin proiektuan parte hartzeko, aldi berean, hasierako proposamenaren aldakuntzak proposatu ditzazketelarik.

Amaitzeko, gogoan izan, nahiz eta gure helburu nagusia leloa ondo ikastea dela, hortxe bigarren zatia ikasteko aukera duzuela. Materialen karpetan, gaia *midi* formatuan dago musika programak erabiliz ikasgelaren mailara nahi den moduko egokitzapena egiteko.

Trimartolod

(Doinu nagusia)

♩ = 80

Xirula/Ahotsa

Ma-ri-ñe - la joan zen a-ben - tu - ra-ren bi - la a-ben-tu -

Arpa/Akordeak

Gm F Eb Dm F

Biolontxelo / Grabea

8

Erritmoa 1

Erritmoa 2

6

Xir.

ra bi - la i - tsa - so ba - rre - ne - ra.

Ak.

Gm F Eb F Gm

Grb.

8

Errt.1

Errt.2

KARPETAKO MATERIALAREN EDUKINA

Zuen eskura jarritako edukinen aurkibidea duzue hemen.

1. MUSIKA TRESNA:

- a) Kaxazko Harpa gelan sortzeko jarraibideak (erderaz daude)
 - harpa (PDF eta Bideo Mp4)
 - kaxazko harpa (PDF eta Bideo Mp4)
 - puxikazko harpa de globo (PDF eta Bideo Mp4)
 - egiptoko harpa (PDF eta Bideo Mp4)

2. MUSIKA LANAK:

- a) “Sinfonia Fantastikoa”, Hector Berlioz
 - Obra osoa Mp3
 - Bideo Partitura Mp4
 - Sarrera edo Intro Jatorrizkoa Mp3
 - Sarrera edo Intro Tempo Aldatua A
 - Sarrera edo Intro Tempo Aldatua B
- b) “Loreen Bals”, Piotr Ilich Chaikovski
 - Obra osoa Mp3
- d) “La Source”, Alphonse Hasselmans
 - Obra osoa Mp3
 - Obra osoa bideo Mp4
 - Jatorrizko partitura osoa PDF

3. GURE SOKAK ERABILIZ:

- a) “Trimartolod” , bretoi doinu tradizionala
 - Obra osoa Mp3 eta Midi formatoan
 - Soilik kontzerturako leloa Mp3 eta Midi formatoan



Edozein zalantza izanez gero, mesedez idatzi: harparenbila@gmail.com